

Arena hondartza eta bere ingurua Muskizeko eta Zierbenako balio natural handienetakoa duten eremuak dira. Hori dela eta, 2004 urtetik Udal horiek Kudeaketarako Zerbitzu Integratua ezarri dute hondartzan: hala zerbitzuen kalitatea kudeatzeko (ISO 9001 araua), nola ingurumena kudeatzeko (ISO 14001 araua).

# Arena hondartza

Hondartzan aurki ditzakezun zerbitzuak ondokoak dira

## ZIERBENAN (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra)

- LUDO-HONDARTZA ETA BIBLIO-HONDARTZA ZERBITZUA  
Txikientzako ekintzak eta prentsa eta liburu-uztea.  
10:00-14:00 / 15:30-19:30
- HONDARTZA BIZI  
Mugikortasun mugatua dutenentzako bainurako laguntza aulki anfibioa erabiliz, makuluak uztea, beldar-aulkia...  
10:00-19:00 (igandeetan itxita)

## MUSKIZEN

- TURISMO BULEGOA  
Zonaldeko toki interesgarrien gaineko informazioa.
- KIROLGUNEA  
Boleibola praktikatzeko zonaldea.




**Zierbena**  
Udala-Ayuntamiento



**MUSKIZ**  
UDALA  
*Ingurumena  
Medio Ambiente*

Hondartzako dunak, duela gutxira arte Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izan direnak, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izatera pasatu dira, bertako parajea eta, hala animaliak nola landareak babesteko asmoz.



KULISKAK



LEZKARI ARRUNTAK



MOKOZABAL  
ARRUNTAK

# Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE)

## FLORA

Beren beregi EAE-ko kostetako hareatzetakoak diren espezieak nabarmentzen dira: *Barlia robertiana* mediterraneoko orkidea, *Limonium ovalifolium* plumbaginacea eta *Ononis natrix* subsp. *ramosissima*.



BARLIA ROBERTIANA



LIMONIUM  
OVALIFOLIUM



ONONIS NATRIX

## FAUNA

Barbaduneko estuarioak txorien migrazioan paper garrantzitsua dauka, txori migratzaileei atsedean hartzeko eta elikatzeko lekua eskaintzen baitie. Bustigune honetan gelditzen diren txorien artean zangaluzeak nabarmentzen dira (kuliskak, txirritxoak, bernagorriak, akulak, kurlintak), baita passeriforme txiki batzuk ere (lezkariak, txinboak, txioak...). Hala ere, batzuetan mokoabalak bezalako espezie deigarriagoak ere ikus ditzakegu.



Uda garaian hondartza zaintzeko

# Aholkuak



## URA AURREZTU EZAZU!

- 1 Hareaz beterik egon ezean... saia zaitetz hondartzako dutxak ez erabiltzen. Erabili itzazu oinak garbitzekoak, horrela, ur kantitate handia aurreztuko dugu eta.
- 2 Dutxa erabiliz gero, saia zaitetz erabilera ahalik eta denbora tarte laburrenean egiten eta ez erabili bainu-jantziak garbitzeko.
- 3 Gogora ezazu dutxak ez direla komun publikoak. Ez erabili xanpurik, ezta xaboirik ere, ura ez kutsatzeko.

## GARBITASUNA KONTSERBA EZAZU!

- Zeure toalla batzen duzunean, sortu duzun zaborra batu eta latak, tetrabrikak eta plastikoak paperontzi horira bota eta, berdera gainontzeko hondakinak.
- Zigarrokinak ez bota! Filtroak 10 urteraino behar ditzake desagertzeko.
- Saia zaitetz beirazko materialik ez erabiltzen. Apur daitezke eta gainontzekoei min eman diezaieke.
- Garbitasunagatik eta segurtasunagatik ezin dira txakurrak edota beste animalia batzuk hondartzara eraman.



BAINU LIBREA



ARRETAZ BAINATU



BAINUA  
DEBEKATUTA



UR JARDUERETARAKO  
ZONALDEA



**ORDUTEGIA**

**Sorosleak: 11:00etatik 20:00etara**

**Hondartzainak: 10:00etatik 20:00etara**

# Sorosleak eta Hondartzainak

## Ekainaren 1etik irailaren 30era

- Eskain iezaiezu laguntza sorosle eta hondartzainei, betiere beren aholkuak betez.
- Gogora ezazu itsasoaren egoera zein den adierazten duten seinaleztapen-banderak derrigor betebeharreko informazio elementuak direla.
- Emandako mezuei arreta jar iezaiezu, zeure segurtasuna horren menpe baitago.
- Ur-jarduerak praktikatzeko mugatuta dauden lekuak zeintzuk diren jakiteko, kontrola itzazu bandera gorriak/urdinak.

